



LIBURUTEGI NAGUSIA
BIBLIOTECA GENERAL

LIBURUTEGI NAGUSIA
2019KO MEMORIA

2019

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

01/ Giza baliabideak

Zerbitzuko arduraduna: 1
Arloko arduraduna: 1
Liburutegiko Goi-mailako teknikariak: 3
Dokumentalista: 1
Liburutegiko Erdi-mailako teknikariak: 2
Liburutegiko administrariak: 2
Mandatarari mendekoa: 1

Kultura Ondarearen funtsak prozesatzeko bi personen laguntza teknikoa izan dugu. Lehena, monografiak katalogatzeko (kontratazioa Kultura Sailaren aurrekontu-funtsekin egin zen) eta bigarrena, aldizkako argitalpenak katalogatzeko (Gobernantza Sailaren aurrekontua). Biak Ikertu SL enpresari esleitu zaizkio.

02/ Lokala, instalazioak eta ekipamendua

225 m²-ko irakurgela, 18 irakurketa-postu, Interneterako sarbidea duten 2 ordenagailu, inprimagailu 1, fotokopiagailu-digitalizatzaile 1, mikroformen irakurgailu 1 (papera eta digitala).

Lantokia: 144 m².

Hiru gordailu Lakua II-ko 2. sotoan, armairu trinkoak dituztenak. A Gordailua, 283m²; C Gordailua, 322 m² eta D Gordailua, 156 m².

25 m²-ko gela bat Lakua II-ko 1. sotoan, telebista-monitorea eta bideo erreproduzitzailea dituena.

Guztira, liburutegi osoan dauden apalategiko metro linealak 6880 dira.

Liburutegiaren kudeaketa guztia AbsysNet programaren bidez egiten da. Programa hori Liburutegi Nagusiaren buru den Bibliotekak Sarean sartuta dauden Eusko Jaurlaritzako sailtako liburutegi guztiek erabiltzen dute.

03/ **Zerbitzuak eta jarduerak**

Liburutegiaren eginkizun nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen informazio-beharrak asetzea da, eta, horretarako, monografiak eta erreferentzia-lanen 84312 ale eta argitalpen seriatuen 4204 izenburu ditu, baita datu-baseen (13) eta aldizkari elektronikoen (93) harpidetzak ere.

03.1. ESKURATZEAK

Funtsak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren, Ogasun eta Ekonomia Sailaren eta Lehendakaritza Sailaren aurrekontu-partidekin eskuratzen dira. Era berean, aipatutako sailetako administrazio-bulegoetan erabiltzeko liburuen erosketak kudeatzen ditu. Katalogoko tituluak ere gehitu dira, beste erakunde eta partikularren truke edo dohaintzengatik.

Sartutako monografiak, guztira: 1146

Eskariak: 1139

Jasotakoak: 1146

Ezeztatuak: 2

Fakturatuak: 458

Kosturik Gabe: 643

Hemeroteka: aldizkari elektronikoetarako 6 harpidetza berri daude.

03.2. KATALOGAZIOA ETA PROZESU TEKNIKOAK

Monografien 2730 titulu prozesatu dira.

Hemerotekan 9332 ale sartu ziren.

Monografien 2040 sumario digitalizatu dira.

Kultura Ondareari buruzko argitalpen seriatuak katalogatzeko laguntza teknikoak aldizkarien 179 izenburu berri gehitu ditu, baita beste izenburu batzuen zenbaki solteak ere.

Kultura Ondarearen Liburutegiaren monografiak birkatalogatzeko laguntza teknikoak 4320 monografia-titulu berrikusi ditu, eta 2897 funtsean txertatu dira.

03.3. AZALEZTATZEA

2019an, 3932,05 euroko aurrekontua onartu zen *El Mundo* egunkaria koadernatzeko (gure liburutegiari dagokio gordetzea, Euskal Prentsa Digitalizatzeko Partzuergoaren erabakiz) eta aldizkarietako 9 izenburu. Guztira 62 liburuki eta hondatutako liburu 1 azalezatu ziren.

03.4. MATERIAL BIKOIZTUEN ESKAINTZAK

Liburutegiak monografiak kopien lau eskaintza egin zituen. Lehenengoa, urtarrilean. 400 titulu eskaini ziren eta 96 bidali ziren 15 erakundetara. Bigarrena, maiatzean. 350 izenburu eskaini ziren, eta horietatik 50 monografia bidali ziren erakunde batera eta 51 aldizkari-zenbaki 6 erakunderi. Hirugarrena, urrian. 399 titulu eskaini ziren eta 138 bidali ziren 9 erakundetara. Laugarrena, apirilean. Kultura Ondarearen Liburutegitik zetozen funtsek osatzen zuten. 242 titulu eskaini ziren eta horietatik 149 bidali ziren bi erakundetara.

03.5. MAILEGUA

Erabiltzaileak

Liburutegiak 4585 irakurle ditu alta emanda. Sare osoaren erabiltzaileak dira. Aurten 243 alta izan dira sarean, eta horietatik 60 Liburutegi Nagusian.

Maileguak: 1678

Itzulketak: 1386

Liburutegien arteko mailegua: liburutegien arteko 7 mailegu kudeatu dira, bai Jauraritzako langileek eskatuta, bai Jauraritzatik kanpoko liburutegiek eskatuta.

03.6. ERREPROGAFIA ZERBITZUA IRAKURKETA-GELAN

Guztira: 2685 orrialde. 1469 paperean eta 1216 digitalizazioan.

03.7. DOKUMENTAZIO ZERBITZUA

2019. urtean, **Dialnet Plus zerbitzuak** 1701 aldizkari-artikulu edo monografia-kapitulu eskari izan ditu. Erantzuteko batez besteko denbora, hau da, erabiltzaileak eskaria egiten duenetik dokumentua bidaltzen den arte igarotako denbora, 1,53 egunekoa izan da. 153 eskatzaile izan dira guztira; horietatik 84 emakumeak eta 69 gizonak. 2019an 31 erabiltzaileri eman zaie alta (21 emakume eta 10 gizon).

Dokumentuak aurkitzeko, eskariak egin diren aldien %20 an (346 eskari) Jaurlaritzatik kanpoko liburutegietara jo behar izan da, batez ere unibertsitateetako liburutegietara. Interneten %6a aurkitu da (94 eskari). Gainerako eskariak (1261, %74) Eusko Jaurlaritzako liburutegietan ebatzi dira.

Dokumentazio-eskariak.

2019an, 179 informazio edota dokumentazio-eskaera ebatzi dira.

03.8. SARE SOZIALETAN PARTE-HARTZEA: TWITTER

Liburutegi Nagusiak 1090 txio argitaratu zituen urtean zehar. Jarraitzaile kopurua, guztira: 834.

03.9. NOBEDADEAK

Hilabete hasieran, irakurgelan sartu diren nobedadeak kontsultatzeko apalategia eguneratzen da, eta buletin bat editatzen da.

03.10. BIBLIOGRAFIA BULETINAK eta IHS

IHS espezializatuak egiten dira aldizkari-zenbaki berriak jasotzen diren bakoitzean, eta erabiltzaile talde mugatu bati bidaltzen zaizkio, hala eskatuta:

Honako IHSak: Kontabilitate Aldizkaria, Lehiaren eta Banaketaren Zuzenbideari buruzko Aldizkaria, Lan Arriskuen Kudeaketa Praktikoaren Aldizkaria, Kooperatiben Aldizkaria, Zerga Sistema, Lan eta Zuzenbide Aldizkaria, ICADE Aldizkaria, Europar Batasunaren Legea eta Actum Social. Guztira, 70 buletin bidali dira.

Azken eskuraketak: Bibliotekak Sarearen Opac sisteman bibliografia bat sartzen da hileroko, azken hilabeteetan sartutako dokumentuak jasotzen dituena.

Jasotzea eskatzen duten Eusko Jaurlaritzako langile guztiei Liburutegi Nagusiaren azken eskuraketen hautaketa jasotzen duen *Nobedadeen Hautapen-Buletina* (bi hilean behin), gaiaren arabera antolatuta, bidaltzen zaie. Guztira 852 pertsonari. Apirilean bidalketa masibo bat egin zen langile berriei ezagutzera emateko.

Gaikako bibliografiak: lau gaikako bibliografia egin dira *Bibliotekak*-en OPACerako: Administrazio elektronikoa, Administrazio-kontratuak, Administrazio-prozedura eta Gardentasuna eta Informazio publikorako sarbidea.

Bibliografia dinamikoak dira; horrela, gehitutako dokumentuek zehaztutako baldintzak betetzen badituzte, automatikoki sartzen dira Bibliografian.

03.11. BESTE JARDUERA BATZUK

Dinamizazio jarduerak: Liburuaren Eguna, bikoiztuta edo baztertuta dauden aleak eskaini dira irakurgelako atean. Antzeko eskaintza egiten zen urte amaieran.

Liburutegiak Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzuarekin lankidetzan dihardu, honako hauek eginez: Bibliotekonomia arloko aholkularitza, aurre-argitalpenen berrikuspena, CIP fitxa eta argitalpenen katalogazioa.

2018an, erakunde-orria aktibatu zen Dialnet Plusen, eta Eusko Jaurlaritzako eta haren erakunde autonomoetako afiliatutako egileekin hasi zen lanean. 2019an, Eusko Jaurlaritzako langileen Dialneteko egileen profilak eguneratzen jarraitu da, eta 202 egile identifikatu dira.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusiak argitaratutako argitalpenetan lan egin da. Argitalpen horiek Dialneten zeuden, eta zerbitzuaren izena normalizatu da, ez baitzen elebiduna, eta informazioa eguneratu da. 387 argitalpenekin lan egin da.

2019ko hasieran, Administrazio-bulegoek material bibliografikoa erosteko eskabideak kudeatzeko “Desideratak” aplikazioa jarri zen martxan, eta 55 eskaera izapidetu dira.

EJIErekin lankidetzan, aplikazio berri bat diseinatzen hasi gara, Liburutegi Nagusiaren baliabide elektronikoak kontrolatzeko, zabaltzeko eta eskuratzeko, datu-baseak zein aldizkari elektronikoak. 2020an jarriko da abian.

03.12. PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

Bisita gidatuen jarduerarekin jarraitu da (Liburutegiko zerbitzuaren eta jardueren azalpena).

03.13. LANGILEEN PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

Hiru teknikarik euskara formazioarekin (Elebi) jarraitzen dute eta Dialneten testuak euskaratzen ari dira.

Aurten Office365/LibreOffice5 (hodeiaren prestaketa-ikastaroa) prestakuntzarekin jarraitu da.

Martxoan liburutegiko langileak Absysnet-i buruzko ikastaro orokor batera joan ziren (4 pertsona)

Urrian: prestakuntza DOKUSIn: artxibo digitala eta AKS/SGA, pertsona bat.

04/ Bibliotekak Sarea

2018an, Bibliotekak Sarearen katalogoa Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearekin bat egitea erabaki zen. 2019an zehar hainbat bilera egin dira 2020rako aurreikusita dagoen prozesua abiarazteko.

2019an, Bibliotekak Saretik Kontsumobideren Liburutegia desagertu da. Hasiera batean, katalogoan mantendu behar ziren argitalpenak hautatu ziren. Behin aukeraketa hori eginda, Liburutegi Nagusian sartu ez ziren gainerako liburuak xahutu ziren. Horretarako, Konsumobideko langileen laguntza izan genuen. Urrian Katalogotik ezabatu ziren Liburutegia eta sukurtsala eta xahututako dokumentu guztiak.

Liburutegia Nagusiak, LEGESAREAKo lantaldean sartuta, Zuzenbide-informazio Eguneroko Buletin Elektronikoa egin eta zabaldu du 8 astez.

Liburutegiak eta bertako langileek zerbitzuak eta prozesuak optimizatzeko sortutako lantaldeetan parte hartzen dute: Eskuratze eta Zirkulazio Taldea, Autoritate Taldea, Aldizkako argitalpenen Taldea, Katalogazio Taldea, Opac Taldea eta Web Presentzia, SharePoint Taldea, Aliantza Taldea, Gordailu Taldea, Legesarea Taldea, Artikuluen Banaketa Taldea eta Estatistika Taldea.

Liburutegi Nagusiak Bibliotekak Sareko Autoritateen katalogoa arazteko proiektuan lan egiten duen pertsona koordinatzen eta babesten du. 2019. urte osoan egile-sarrerak berrikusi eta AUBI katalogoarekiko aldeak zuzentzen lan egin da, Irakurketa Publikoko Sarearekin bat egitea helburu izanik.

05/ Kanpo-lankidetzak

Beste 10 erakunderekin lankidetzan jarraitzen dugu “Euskal Prentsa Digitalizatzeko Partzuergoa” izenekoan. Partzuergo hau 1991n hasi zen euskal prentsa digitalizatzeko asmoz, eta, horrela, haien atzera begirako biltegiatze-kostuak saiheste aldera, baita bertara sartzea erraztuz ere. Akordio horretan, Liburutegi Nagusiak *El Mundo* egunkaria gorde eta koadernatzen du.

Liburutegi Nagusiak Bilgunea Katalogo Kolektiboan parte hartzen du. Katalogo hori Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat erakunde publikok zein pribatuk osatzen dute, eta Eusko Jaurlearitzako Kultura Sailak sustatzen du.

Bi liburu utzi zaizkio Lehendakaritzari Euskal Museoak antolatutako erakusketa baterako: “Basques in California”.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2020